

IRAKASLE IKASKETEN ATALA

ESKOLA ETA CURRICULUMA

K2 Moduluko Diziplinarteko Lanerako ikasleen gida

IRAKASLE IKASKETEN ATALA

Haur Hezkuntzako Gradua

2022-2023 Ikasturtea

AURKIBIDEA

1. TESTUINGURUA	4
2. MODULUKO IRAKASLE TALDEA	4
3. EZAUGARRI OROKORRAK	5
3.1. Ezaugarriak.....	5
3.2. Edukien deskribapen laburra eta moduluko irakasgaien gaitegiak	5
4. GALDERA ERAGILEA	6
5. AGERTOKIA.....	7
6. MODULUKO DIZIPLINARTEKO LANAREN (DAL) DESKRIBAPENA	7
7. MODULUAREN GAITASUNAK ETA HELBURUAK	8
8. LANAREN FASEAK	9
8.1. I Fasea: material didaktikoa hautatzea eta justifikatzea.....	9
8.2. II. Fasea: material didaktikoa deskribatzea eta aztertzea	9
8.2.1 Didaktika orokorra	9
8.2.2 Hezkuntzaren psikologia	11
8.2.3 Garapen psikomotorra I.....	11
8.2.4 Musika adierazpenaren garapena I.....	12
8.2.5 Arte plastikoa eta ikus kultura Haur Hezkuntzan	13
9. TXOSTEN IDATZIA.....	13
10. IRAKASLEEK BURUTU BEHARREKO JARDUERAK	14
11. LANTALDEAK KUDEATZEA ETA TUTORETZAK	14
11.1. Taldeak nola osatu.....	14
11.2. Taldeko bilerak.....	15
11.3. Faseak aurkezteko saioak	15
11.4. DAL-aren faseak eta amaierako txosten idatzia entregatzea.....	15
11.5. Kronograma	16
11.6. Egutegia.....	17
12. LANAREN EBALUAZIOA	18
12.1. Ebaluazio jarraia	18
12.2. Ebaluazio finala.....	18
12.3. Ebaluazio-errubrika.....	19
13. MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK	22
14. LANA BURUTZEKO ERREFERENTZIAK	22
14.1. Azterketarako ikasmaterial eskuragarriak	22
14.2. Testu arauemaileak	22
14.3. Gaitasunak.....	23
14.4. Hezkidetza	23
14.5. Haur Hezkuntzarako testu-liburuak.....	24
14.6. Hobetzeko aukerak kontsultatzeko erreferentziak	24
1. ERANSKINA:TALDEAREN FITXA	25
2. ERANSKINA: AKTA-EREDUA	26

1. TESTUINGURUA

Zentroa: Hezkuntza eta Kirol fakultatea, Irakasle Ikasketen Atala
Moduluaren izena: <i>Eskola eta curriculum</i> . 2. Modulua Haur Hezkuntzan (K2)
Ikasturtea: 1. (lehenengoa) Lauhilabetekoa: 2. (bigarrena)

2. MODULUKO IRAKASLE TALDEA

Haur Hezkuntza - 46 eta 47 taldeak

Hezkuntzaren Psikologia	Iratxe Antonio-Agirre	945 01 4225 2.5 bulegoa	iratxe.antonio@ehu.eus
Didaktika Orokorra	Hector Galindo-Dominguez	945 01 3422 PDI02 bulegoa	hector.galindo@ehu.eus
Musika Adierazpenaren Garapena I	Asier Ealo	943 01 7032 945 01 4091	asier.ealo@ehu.eus
Arte Plastikoak eta Ikus Kultura I	M. Peña (46 eta 47)	946 01 7547 945 01 3617	miriam.pena@ehu.eus
	Estibaliz Gutierrez (47)	945 01 4219	estibaliz.gutierrez@ehu.eus
Garapen Psikomotorra I	Iker Ros (46)	945 014208 B.10 bulegoa	iker.ros@ehu.eus
	Iraitz Lizarraga (47)	945 01 4198 B.10 bulegoa	iraitz.lizarraga@ehu.eus

Koordinazioa: Iker Ros

3. EZAUGARRI OROKORRAK

3.1. Ezaugarriak

“Eskola eta curriculuma”, Haur Hezkuntzako Graduaren 2. modulua, lehen ikasturteko 2. lau hilabetekoan ematen da, eta taulan agertzen diren bost ikasgaiak hartzen ditu:

IKASGAIA	KREDITUAK
Musika Adierazpenaren Garapena I	6
Arte Plastikoak eta Ikus Kultura Haur Hezkuntzan	6
Garapen Psikomotorra	6
Didaktika Orokorra	6
Hezkuntzaren Psikologia	6

“Eskola eta Curriculuma” modulurako prestatutako lan proposamena 5 ECTS kredituko diziplinarteko lana egitea da: ikasgai bakoitzak kreditu 1 emango du lan hau egiteko, eta hala, gehienez bi puntuko kalifikazioa emango da haietako bakoitzean.

Eman beharreko denbora honako hau izango da: bertaratzeko 10 ordu, eta ez bertaratzeko 15 ordu moduluko ikasgai bakoitzeko, hau da, bertaratzeko 50 ordu eta ez bertaratzeko 75 ordu taldeko pertsona bakoitzarentzat.

3.2. Edukien deskribapen laburra eta moduluko irakasgaien gaitegiak

Moduluko diziplinarteko lana (DAL) elkarrekintzan jarriko ditu lau hilabeteko ikasgai bakoitzean alfabetatzera zuzendutako edukiak, etaparen oinarritzko ikaskuntza-printzipioak, hezkidetza eta EAEko hezkuntza curriculum arauemailea, erlazioan jarritz etapa honetara zuzendutako irakaskuntza-esperientzietan eskaintzen diren ikaskuntza-proposamenekin. Moduluan parte hartzen duten ikasgaien gaitegiak honako hauek dira:

Hezkuntzaren Psikologia	• Ikaskuntzaren eta jakintza eraikitzearen teoriak. • Eskolako ikaskuntza eta motibazioa. • Taldekatzeak eta berdinen arteko harremanak. • Auto-kontzeptua eta auto-estimua eta ikaskuntzarekin duen lotura.
Didaktika Orokorra	• Etaparen curriculum • Irakaskuntzaren eta curriculumaren teoriak. • Curriculumaren diseinua eta garapena. • Diseinuaren elementu nuklearrak: Konpetentziak, Etapa helburuak, Edukiak, Metodologia, eta Ebaluazioa.
Musika Adierazpenaren Garapena I	• Entzumena eta musika-lengoaia. • Ahotsa eta kantua. • Gorputzaren mugimendua eta dantza. • Musika-tresnak. • Soinua, zarata eta isiltasuna. • Sormena eta jokuak.
Arte Plastikoak eta Ikus Kultura Haur Hezkuntzan I	• Ikus-lengoiak. • Plastika-arteak. Ikus-kultura. • Ingurunearen hautemate plastikoa, begirada hezteak. • Plastikarako teknikak, prozedurak, baliabideak. Egokitze didaktikoaren mailak.
Garapen Psikomotorra I	• Garapen psikomotorraren oinarriak. • Gaitasun pertzepzio-motorrak. • Jolas motorra. • Gorputzaren adierazpena eta komunikazioa.

4. GALDERA ERAGILEA

Haur Hezkuntzako etapan erabiltzen ari garen irakaskuntza-esperientzia egokia al da?

Zeintzuk dira kontuan hartu ahal ditugun irizpideak Haur Hezkuntzako etapan erabiltzen ditugun materialak aztertzeko eta balioesteko?

5. AGERTOKIA

Moduluko lan hau egiteak lanbidean ager daitezkeen zenbait egoera eta arazori aurre egin ahal izatea ekarriko du.

Zuen etorkizuneko praktika profesionalean topa dezakezuen kasu honetatik abiatuko zarete:

“Hezkuntzako curriculumetan dauden perspektiba berriak kontuan izanik, bizitzarako gako diren gaitasunak ikasteen oinarritzen direnak, eta Berritzeguneren (Irakasleentzako baliabide- eta aholkularitza-zentroa) aholkularitzatik jasotako oharpenei jarraikiz, Itsasmendi Haur Eskola ikastegiko Haur Hezkuntzako irakasle-taldea osatzen duzuenok egun erabiltzen duzuen metodologia birplanteatzea erabaki duzue.

Erabakiak hartu aurretik, beharrezkotzat jo duzue Haur Hezkuntzan gaitasunak lantzeko beste ikastegietan erabiltzen ari diren ikuspegi metodologiko desberdinei buruzko informazioa eskuratzea.

Horretarako, hainbat irakaskuntza-esperientziak aztertuko dituzue, curriculum-diseinuaren oinarritzko osagaiak nola lantzen diren ezagutze aldera: gaitasunak, edukiak, metodologia eta ebaluazioa aztertuko dituzte. Zuetariko irakasle-talde bakoitzak irakaskuntza-esperientzia bana aztertu eta idatzizko txosten batean jasoko ditu ondorioak.

Txosten hori idazteko, haxe izango da helburua: aztertu, balioetsi eta hobetzeko aukerak proposatu, psikologiaren, pedagogiaren eta didaktika espezifikoen alorrean (musika, arte eta psikomotrizitatea) zein hezkuntza-planteamendu orokorrak aintzat hartuz.

6. MODULUKO DIZIPLINARTEKO LANAREN (DAL) DESKRIBAPENA

Lankidetzeta-lana da, bai eskoletan erabiltzen diren bai aldizkari edo hedabide espezializatueta argitaratuta dauden irakaskuntza-esperientziak (Unitate Didaktikoak, Proiektuak, esperientziak) azterketan oinarritzen dena.

Hautatutako irakaskuntza-esperientzia garatu nahi dituen gaitasunak / helburuak eta edukiak deskribatu eta aztertuko dira, baita proposatzen dituen metodologia eta ebaluazio-sistema ere, ikasgai bakoitzetik, curriculum-diseinutik eta hezkidetzatik planteatzen direnekin alderatuz.

Hortaz, lana egin ahal izateko, agerikoa da ikasleek batez ere Haur Hezkuntzarako Curriculum Dekretua ezagutu eta erabili beharko dutela, eta baita Didaktika zehatzek eta gainerako irakasgaiek eta dagozkien atalek jasotakoa ere. Kontuan hartuta:

- Gaitasunak / helburuak.
- Edukiak.
- Metodologia.
- Ebaluazioa.

Ondoren, aztertutako irakaskuntza-esperientzia balioetsiko da, alde onak eta hobetzekoaldeak nabarmenduz, hala balitz, hobetu daitezkeen alderdietan bestelako irakaskuntza- esperientziak aurkeztuz eta proposamen horiek arrazoituz: zein hiru alderdi on eta beste hiru hobetzeko aurkitu dira aztertu den Haur Hezkuntzarako irakaskuntza-esperientzian?; hobetzeko zein beste aukera proposa daiteke?; zergatik?

7. MODULUAREN GAITASUNAK ETA HELBURUAK

Moduluaren berariazko gaitasunak	M1. Haurtzaroko (0-6) irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen oinarritzko printzipioak identifikatzea eta ulertzea, etapa horren curriculum eta ikasmaterialak aztertzean aplikatzeko. M2. Ikasmaterialak baloratzea, psikologia, pedagogia, berariazko didaktika eta hezkidetzaren ikuspuntutik, bestelako aukerak proposatzeko. M3. Idatzizko txostenak egitea irakaskuntza-lanbidearen eremuko kideekin komunikatzeko. M4. Ikasle-lantalde batean aktiboki parte hartzea lankidetzalana egiten ikasteko.
Helburuak	1. Analisi, sintesi, kritika eta autokritika ahalmenak garatzea, curriculum-baliabide batzuen inguruko ikaskuntza autonomoan eta kooperatiboan oinarrituz, baliabide horiek balioetsi eta beste aukera batzuk proposatu ahal izateko, psikologiatik, pedagogiatik, didaktika espezifikoetatik eta hezkidetzatik. 2. Hezkuntza-prozesuak aztertu eta ulertzeko ahalmena garatzea, ikaskuntzaren teoria psikologikoetatik, haurtzaroan garapenari egoki zaizkion edukiak aplikatu ahal izateko. 3. Haur Hezkuntzarako egokiak diren baliabide didaktikoak hautatu eta prestatzeko oinarritzko ezagupenak eskuratzea.

Moduluko lana amaitzean, ikasleek jakin egin beharko dute irizpideak identifikatzen (ikasgai ezberdinetan, Curriculumean eta hezkidetzan) irakaskuntza-esperientziak aztertu eta ebaluatuaahal izateko.

Ikasleek hobeto ezagutuko dituzte etapa eta Haur Hezkuntzako curriculum sustengatzen duten oinarri psikopedagogikoak. Halaber, gaitasunak garatuta izango dituzte, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan eragiten duten faktoreak ulertu ahal izateko. Oinarritzko ikasgaiei buruzko ikuspegi zabalago eta bateratzaileago bat eskuratuko dute gainera, eta didaktika espezifikoak zein curriculum arautzailea ezagutzen hasiko dira, eta hala, beren lanbidea hobeto ulertzeko aukera izango dute.

Proposamen bat beste bat baino hobea zergatik den argudiatzen jakingo dute, kontuan harturik hautzaroan jakintza nola eraikitzen den, curriculumaren gomendio arautzaileak nolakoak diren, eta aztertutako irakaskuntza-esperientziak proposatzen dituen eduki eta gaitasunak egokiak diren, ikasgai espezifikoaren estandarrekiko eta hezkidetzaren oinarriekiko. Argudiatzea oinarrituta egongo da, irakaskuntza-esperientziaren azterketan, alderaketan eta hausnarketan, eta gai izan beharko dute hautatutako aukera entzule adituen aurrean defendatzen.

8. LANAREN FASEAK

Egin beharreko lanak bi fase izango ditu: (1) irakaskuntza-esperientzia hautatu eta hautapena justifikatzea; (2) hautatutako irakaskuntza-esperientziaren azterketa, balorazioa eta horihobetzeko proposamenak helaraztea. Fase bakoitza ez da aldaezina izango; hau da, ikasleek, egindako etengabeko ikaskuntzaren arabera, fase bakoitza berrikusi eta berregin ahal izango dute.

8.1. I. Fasea: irakaskuntza-esperientzia hautatzea eta justifikatzea

Moduluko irakasleek hainbat irakaskuntza-esperientzia jarriko dituzte eskuragarri (unitate didaktikoak, proiektuak, esperientziak edota artikuluak) lantaldeentzat. Lantalde bakoitzak 4 irakaskuntza-esperientzia balioetsiko ditu, eta horietako bat hautatu beharko du aztertzeko.

Hautapen-prozesu hori guztia DAL-aren txosteneko 1. zatian azalduko da, idatziz, non, besteak beste, honako informazio hau agertu beharko baita:

1. Aurrez aukeratutako 4 irakaskuntza-esperientzietako bakoitza labur deskribatzea,
2. Irakaskuntza-esperientzia hori aukeratu izana justifikatzea arrazoiak azalduz

8.2. II. Fasea: irakaskuntza-esperientziaren azterketa eta balorazioa

Irakaskuntza-esperientziaren analisia eta balorazioa, moduluan parte hartzen duten ikasgaiaren ikuspegitik egingo da: Didaktika orokorra, Hezkuntzaren Psikologia, Garapen Psikomotorra I, Musika adierazpenaren garapena I eta Arte plastikoa eta ikus kultura Haur Hezkuntzan I.

8.2.1. DIDAKTIKA OROKORRA

Haur hezkuntzako K2 moduluan, aztertzeko aukeratutako materiala edo irakaskuntza-esperientziaren inguruan hainbat galdera egin beharko dizkiezue zuen buruei.

- Didaktika orokorreko zein paradigmatan kokatzen da?
- Zein ikaskuntza irakaskuntza teoriarekin lotzen da?
- Gaur egun Heziberrik 2020 (237/2015 Dekretua) proposatutako hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoarekin bat egiten du?

- Zein kompetentzia landu daitezke aukeratutako material edo irakaskuntza-esperientziaren bidez?

Galdera hauek erantzun ostean, bi lan egin beharko dituzue.

A. Heziberri-k 2020 (237/2015 Dekretua) markatutako bidea jarraitzen duten materialetan edo irakaskuntza-esperientzietan ere, ikasleen ikasketa prozesua hobetzeko proposamenak egin beharko dituzue.

B. Gainerako irakasgaietan egin beharreko hobekuntzez edo jardueraz baliatuz, hauei sekuentzia didaktiko labur baten itxura emango diozue.

8.2.2. HEZKUNTZAREN PSIKOLOGIA

Galdera eragileak azterketarako:

- Irakaskuntza esperientzia honek zer-nolako irakaskuntza mota ahalbideratzen du?
- Hau Hezkuntzako ikasleen motibazioa pizten al du?
- Irakaskuntza esperientzia honek ikasleen identitatearen eraikuntzan laguntzen al du? Euren autokontzeptua/autoestimua hobetzen du?
- Irakaskuntza esperientzia honek ikasleen arteko harremanak ahalbideratzen ditu?

*Hautatuko irakaskuntza esperientziak jarduera multzo bat izanez gero, jarraian dagoen taula betetzea gomendatzen da eta, honetan oinarriturik, bertan azaldutakoa josirik eta hitzez azaltzea eskatuko da, betiere arrazoituz.

	Ikaskuntza mota	Motibazioa	Autokontzeptua	Harremanak
1. JARDUERA				
2. JARDUERA				
3. JARDUERA				
...				

Hobekuntzarako proposamenak:

Fase honek taldeek hautatutako irakaskuntza-esperientziaren inguruko hobekuntzak proposatzea eskatzen du, bai didaktikoak (jarduerak...), bai metodologikoak (irakasleak erabilitako metodologia, taldeen kudeaketa...) izan daitezkeenak, horrela Hezkuntzaren Psikologiaren ikuspegitik osatzeko. Hobekuntza horien helburu nagusia, material horrek ahalbideratzen dituen

ikasleen ikasteko estilo, motibazio maila, autokontzeptu eta gizarte-gaitasun maila desberdinak osatzea izango da.

8.2.3. GARAPEN PSIKOMOTORRA I

- **Aztertutako irakaskuntza-esperientzian Grapen psikomotorra lantzen da?**
 - Esplizituki? Zuzenean garapen motorra eta psikomotrizitatea lantzerako bideraturiko ekintza konkretuak daudenean eta hala adierazten denean proposamenean.
 - Implizituki? Aipatzen ez bada ere, proposatutako ekintzak garapen motorrekin harremana duenean.
- **Baiezko bada....**
 - Ekintza egokia da: Haurren adina, taldearen ezaugarriak, baliabideak, espazioa , denbora. kontutan hartuta.
 - Proposatzen den ekintzak eta irakaskuntza-esperientziaren helburuek lotura dute?
 - Kurrikulumean proposatzen diren garapen motorreko helburuekin harremana du?
 - Garapen psikomotorren zein alor lantzen dira: Oreka, lateralitatea, gorputz-eskema, espazioa, denbora,
 - Osatu proposamena ekintza berri batekin: ariketa honen helburua garapen psikomotorren arlo **zehatz** bat lantzea izango da: Oreka, lateralitatea, gorputz-eskema, espazioa, denbora
- **Ezekoa bada: proposatu bi ariketa**
 - Taldearen ezaugarriak kontutan hartuta.
 - Ekintza bakoitzaren helburua garapen psikomotorren arlo zehatz bat lantzea izango da: Oreka, lateralitatea, gorputz-eskema, espazioa, denbora

8.2.4. MUSIKA ADIERAZPENAREN GARAPENA I

Nola aztertu musika elementuak material didaktiko baten?

- 1- **Inolako musika jarduerarik agertzen da aztertzen ari garen irakaskuntza-esperientzi honetan?**
 - a. Ez: Zergatik uste duzu ez dela ezer agertzen musikarekin lotuta? (jarraitu 3a-n)
 - b. Bai: deskribatu musika jarduera horiek (jarraitu 2n)
- 2- **Uste duzu irakaskuntza-esperientzia horretan agertzen diren musika jarduerak egokiak direla Haur Hezkuntzan lantzeko?**
 - a. Bai: musika edukiak Haur Hezkuntzan sekuentziatzeko proposamenarekin bat datoz guztiz, edo ia.

- b. Erdizka: denak ez datoz bat edukiak sekuentziazteko proposamenarekin. Zergatik uste duzu hori gertatzen dela? (jarraitu 3b-n)
- c. Ez, bat ere ez. Ez dira batere egokiak. Arrazoiak eman. (jarraitu 3c-n)

3- Nolabait hobetu ahal ditugu musika jarduera horiek?

- a. Inolako musika jarduerarik agertzen ez denean gure irakaskuntza-esperientzian, jarduera pare bat asmatuko ditugu gure proposamenaren gaiarekin lotuta, edukien sekuentziazioarekin egokiak direnak
- b. Musika jarduerak egon harren, horiek hobetze aldera, Haur Hezkuntzarako egokiak izan daitezkeen aldaketak proposatuko ditugu.
- c. Musika jarduerak egon harren, Haur Hezkuntzarako desegokiak direlakoan, jarduera berriak asmatuko ditugu gaiarekin lotuta eta irizpideekin bat datozenak.

4- Proposatu musika jarduera bat Haur Hezkuntzarako egokia dena (edukiei begira) eta proposamenaren gaiarekin lotuta dagoena.

5- Proposatu dituzuen musika jardueretan, zeintzuk dira lantzen diren helburuak eta gaitasunak Haur Hezkuntzako Curriculumari begira?

8.2.5. ARTE PLASTIKOAK ETA IKUS KULTURA HAUR HEZKUNTZAN I

Haur Hezkuntzarako K2 moduluan, aztertze hautatutako irakaskuntza-esperientzian, arte plastikoak lantzen ari dira? *

BAIEZKO ERANTZUNA:

- 1- Zein arte-hezkuntza paradigmatan kokatzen da?
- 2- Irakurgai izan duzuen materiala eta izan duzuen ibilbidearen (talde lan prozesuan izandako esperientziak, hartutako erabakiak, izandako eztabaidak, aurkikuntzak...); Ikus Narratiba, Poster, Errelatograma edota Visual Thinking bat sortu beharko duzue.
- 3- Zelan emango zenioke jarraipena arte-hezkuntzako arloan sakontzeko?

EZEZKO ERANTZUNA:

- A- Azaldu zergatik ez dira esperientzi horretan arte plastikoak lantzen.
- B- Irakaskuntza-esperientzia testuingurua kontutan izanda, proposatu forma eta kolorearekin zerikusia daukaten oinarritzko jarduera berri bi, betiere curriculumeko oinari pedagogikoekin bat datozenak.
- C- Proposatutako jarduera bi horietan zeintzuk izan dira helburuak eta Jorratutako edukiak.

* Planteatu beharreko jarduerak, Haur Hezkuntzako bigarren zikloan burutzeko aproposak izango dira.

9. TXOSTEN FINALA

Entregatu beharreko txosten finalean, bi fase horietako emaitzak bilduko ditu ikasgai guztien ikuspegia bilduz, egitura honi jarraituz:

Azala (proiektuaren izena, moduluaren, mailaren, graduaren, ikasturtearen eta lantaldearen identifikazioa).

Aurkibidea (txosten idatziaren atalen zerrenda, orrialde-zenbakiak zehaztuta).

1. Sarrera (lan-faseen laburpena).

2. Fasea: irakaskuntza-esperientziaren hautaketa (labur deskribatzea eta arrazoitzea).

3. Fasea: irakaskuntza-esperientziaren azterketa eta balioespena (ikasgai bakoitzean egindako lana).

4. Erreferentziak.

5. Eranskinak (nahitaezkoa da gutxienez bileretako aktak eranstea).

Euskarri informatikoan idatziko da txostena, 12 tamainako Times New Roman letrarekin, 1,5 lerroartekorekin, APA 7 arauak jarraituz erreferentzietan. Bestalde, ikasgai bakoitzetik azaltzen diren ildoak eta egin beharrekoak jarraituko dira.

10. IRAKASLEEK BURUTU BEHARREKO JARDUERAK

1. Moduluko Diziplinarteko Lana (DAL) diseinatu, ezarri eta ebaluatzea.
2. Ikasleei Moduluko Diziplina arteko Jardueraren diseinu orokorra eta horren faseak azaltzea.
3. Irakaskuntza-esperientziak ematea, lana burutzean beharko diren ikasgai bakoitzaren ezagupenak eskuratu ahal izateko.
4. Moduluko lan-prozesuaren fase guztietan lagundu ideak eta gogoetak emanaz ikasgai bakoitzaren ikuspegitik.
5. Txosten finaleko dagokion atal bakoitza zuzentzea.

11. LANTALDEAK KUDEATZEA ETA TUTORETZAK

Modulu-lana 4 ikasleko lantaldeetan egingo da.

Irakasle bakoitzak, bere ikasgaian, behar diren beste saio emango ditu lana aurrera eraman ahal izateko, gutxienez 10 ordu izanda.

11.1. Taldeak nola osatu

- **Taldeak osatzeko arauak:** 4 pertsonako taldeak osatuko dira. Ikasle guztien kopuruarengatik beharrezkoa balitz, 3 pertsonako taldeak osatuko dira, baina moduluko irakasleek hartuko dute erabakia. Moduluko lanaren bitartez ebaluatua izateko, derrigorrezkoa da ebaluazio jarraia aukeratzea.
- **Osatutako taldeak jakinaraztea:** talde bakoitzak 1. eranskinaren fitxa bete beharko du, taldekide bakoitzaren datuak zein aztertuko duen behin betiko irakaskuntza-esperientzia

zehaztuz, eta eGelara igoko du, ale bat talde bakoitzeko, honako hau idatzirik:
K2_31_taldearen izena (esaterako, K2_31_Itzalak).

- **Talde-fitxa eGelan entregatzeko azken eguna: urtarrilaren 31an**, eguerdiko 14:00ak arte.

11.2. Taldeko bilerak

Talde bakoitza beharrezkoa deritzon bezain beste aldi bilduko da, Moduluko Diziplina arteko Jardueraren faseak eta azken txostena burutzeko. Talde bakoitzak askatasunez adostuko ditu bilera horien datak eta orduak, beste talde batzuen tutoretza-orduetan zehar egin behar direnak salbu. Bilera horietako bakoitzean, beharrezkoa izango da akta bat egitea, 2. eranskinaren eredua jarraituta. Moduluko irakaslegoak lan-prozesuaren edozein unetan eska ditzake akta horiek, eta nahitaezko eranskin gisa erantsiko dira Azken Txostenean.

11.3. Modulu aurkezpen saioa eta ikasgai bakoitzetik kontuan hartzekoak

Ikasleek errazago uler ditzaten egin beharreko zereginak, proposatzen da moduluaren aurkezpen orokor bat fase guztiak zehaztuz. Irakasle bakoitzak emango ditu gutxienez hiru saio bere ikasgaiari irakaskuntza-esperientzia aztertzeko eta baloratzeko irizpideak azaltzeko.

11.4. DAL-aren faseak eta amaierako txostena entregatzea

DALaren lehenengo fasea **otsailaren 14an** entregatuko da. K2ko eGelaren bidez bidali beharko da; mezuaren gaian zein fitxategiaren izenean, honako hau zehaztuz: K2_31_F fasearen zenbakia_taldearen izena (adibidez: K2_31_F1_Itzalak).

Amaierako txostena kronograman zehaztutako egunean entregatu beharko da nahitaez, alegia, 2022ko **maiatzaren 13ean**, 14:00ak baino lehen. Kasu horretan ere, eGelaren bitartez, bai gaian, bai fitxategiaren izenean, hurrengoak zehaztuz: K2_31_IF_taldearen izena.

11.5. Kronograma

DATAK ETA JARDUERAK	EGIN BEHARREKO ZEREGINAK
	EBALUAZIO JARRAIA
Urtarrilak 24-31 Eskola eta Curriculumum modulua aurkeztea (Astelehena, urtarrilak 24an 14:00tan 31 eta 32 taldeak 2.5 gelan) eta lan-taldeak sortzea (Astelehena, urtarrilak 30an 14:00arte taldeko fitxa entregatzea eGelaren bitartez).	- Ikasleek taldeak sortzea: - Gidara erantsitako fitxa betetzea (mindomoan word formatuan ere eskuragarri dago). - eGelara bidaltzea aurretik zehaztutako argibideei jarraituz. Epemuga: urtarrilaren 30an 14:00etan. - Bakarka irakurtzea Eskola eta Curriculumum Moduluen Diziiplina arteko Jarduerarako ikasle-gida, hemen eskuragarri dagoena: http://www.mindomo.com/view.htm?m=f86989793c9d4097ac04eeedd754dda (pasahitza: eskolaetacurriculumum) eta Eskolako web gunean. Fotokopia-dendan ere har daiteke.
Urtarrilak 31-otsailak 13 I. Fasea: irakaskuntza-esperientzia aukeratzea eta arrazoitzea.	- Lau irakaskuntza-esperientzia aukeratzea (bat pertsona bakoitzeko) eta horietako bakoitza deskribatzea. - Lehenengo bilerak egitea, adosteko zein den aurrez aukeratutako irakaskuntza-esperientziarik egokiena. Argumentatutako eztabaida aktan jasoko da. - Aurretik egindako guztiak kontutan izanda, 1. fasea idaztea. GARRANTZITSUA: taldeen bilerak aktetan jasoko dira eta bileretan eztabaidatzeko hasiera-puntutzat balioko dute.
Otsailak 13	I. Fasearen entrega eGelaren bidez: irakaskuntza-esperientzia aukeratzea eta arrazoitzea
Otsailak 15-Apirilak 4 II. Fasea: irakaskuntza-esperientzia aztertu eta baloratuko da, irakasgai bakoitzen emandako irizpideei jarraituz.	- Aukeratutako irakaskuntza-esperientzia aztertzea, ikasgai bakoitzean emandako irizpideei jarraituz. - Aukeratutako irakaskuntza-esperientzia baloratzea, argudio sendoetan oinarrituz, ikasgai bakoitzean emandako irizpideei jarraituz. - Aukeratutako irakaskuntza-esperientzia osatzeko asmoz, hobekuntzarako proposamenak helaraztea, horiek beharrezkoak kontsideratuz gero, betiere ikasgai bakoitzean emandako irizpideei jarraituz.
Apirilak 5-Maiatzak 10	II. Fasearen entrega irakasle bakoitzari: irakaskuntza-esperientziaren azterketa eta balorazioa
Ikus bedi kronograma Moduluko Diziiplina arteko Jarduerari buruzko azken txosten idatzia burutzea.	Diziiplina Arteko Lanaren azken informea egin, aurkeztutako parteak bilduz
Maiatzak 12	Azken txosten idatzia ematea eGelaren bidez 14:00ak arte

11.6. 2021/2022 ikasturteko 2. lauhilabeteko egutegia

URTARRILA/ENERO						
L. /AL.	M/AS.	X. /AZ.	J. /OG.	V. /OS.	S. /LR.	D. /IG.
23	24	25	26	27	28	29

Urtarrila

23: Moduluaren aurkezpen orokorra.

14:00tan 46 eta 47 taldeak elkarrekin 2.5 gelan.

OTSAILA/ FEBRERO						
L. /AL.	M/AS.	X. /AZ.	J. /OG.	V. /OS.	S. /LR.	D. /IG.
30	31	1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28					

Urtarrila

30: (14:00) Taldeko fitxa eGelan entregatzeko azken data.

Otsaila

13: (14:00) eGelaren bidez 1. fasearen bidalketa.

MARTXOA/ MARZO						
L. /AL.	M/AS.	X. /AZ.	J. /OG.	V. /OS.	S. /LR.	D. /IG.
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

APIRILA /ABRIL						
L. /AL.	M/AS.	X. /AZ.	J. /OG.	V. /OS.	S. /LR.	D. /IG.
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

Apirila

5: 2. fasearen bidalketa: Garapen Psikomotorrari I dagokion irakasleari.

19: 2. fasearen bidalketa: Arte Plastikoak eta Ikus-Kulturari I dagokion irakasleari.

26: 2. fasearen bidalketa: Didaktika Orokorrari dagokion irakasleari.

MAIATZA/ MAYO						
L. /AL.	M/AS.	X. /AZ.	J. /OG.	V. /OS.	S. /LR.	D. /IG.
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

Maiatza

3: 2. fasearen bidalketa: Hezkuntzaren Psikologiari dagokion irakasleari

10: 2. fasearen bidalketa: Musika Adierazpenaren Garapenari I dagokion irakasleari.

12 (14:00): Azken txosten idatziaren bidalketa eGelaren bidez

12. LANAREN EBALUAZIOA

Moduluko Diziiplina arteko Jardueran parte-hartzea DERRIGORREZKOA da, ebaluatzen sistema dena dela. Ebaluatzen bi modalitate desberdin izango dira, bata ebaluazio jarraia eta bestea ebaluazio finala. Moduloko azken nota, bertan parte hartzen duten 5 ikasgaien batazbestekoa izango da. EZINBESTEKOA da parte bakoitza gainditzea batazbestekoa egiteko. Parteren bat ez bada gainditzen, bigarren deialdirako hobetuko da, gainontzeko parteak gordez.

12.1. Ebaluazio jarraia

- Ebaluazio jarraia aukeratzen duten ikasleek lan-kronograma xehatu bat izango dute erreferentzia gisa, ikasgai bakoitzeko irakaskuntza-gidan zehaztua.
- Moduluko lanaren amaieran azken txosten bat entregatu behar da, 4 ikasleko taldetan burutua.
- Modulu-lanaren kalifikazioa berbera izango da lantaldeko ikasle guztientzat. Justifikatutako egoeretan, taldekideek bestelako ebaluazio proposamen bat helaraziz gero, irakasle-taldeak zilegi iritzita adostuko dute.
- Modulu-lanaren kalifikazioa ikasgaiaren kalifikazioaren 1/5 izango da (2 puntu). Kalifikazio hau moduluko irakasle guztiek adostuko dute eta diziiplina bakoitzaren ebaluazioari gehituko zaio.
- **Modulu-lana gainditu gabe eta ikasgaia gaindituta:** ikasgai bakoitzaren irakaskuntza-gidan ageri da modulu-lana gakoa den ikasgai hori gainditzeko. Modulua gainditzea ezinbesteko baldintza bada irakasgaia gainditzeko, lana hobetu beharko duzue hura ikasgaiarekin batera hurrengo deialdian gainditu ahal izateko.
- **Modulu-lana gaindituta eta ikasgaia gainditu gabe:** lanaren kalifikazioa irakasgai edo irakasgaiak gainditu arte gordeko da.
- **Modulu-lana eta ikasgaia gainditu gabe:** 2. deialdiko azterketan, ikasgaiaren azterketaz gain, moduluko lana berregin edo moduluko lanari buruzko galderak erantzun beharko dira azterketan.

12.2. Ebaluazio finala

- Bertaratzen ez den ikasleak ebaluatzen ikasgai bakoitzeko proba espezifikoak erabiliko dira.
- Ikasgai bakoitzeko proba horiek moduluko lanari buruzkoak izango dira eta soilik dagokion ikasgaiarekin lotuta
- Modulu-lanari buruzko probek ere gehienez 2 puntu jasoko dute (ikasgaiaren kalifikazioaren 1/5).

12.3. Ebaluazio-errubrika

ERRUBRIKAREN PONDERAZIOA. Irakaskuntza-esperientziaren hautaketa eta azterketa.				
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	Hobetu behar (0-4.99)	Onargarria (5-6.99)	Lan ona (7-8.99)	Lan bikaina (9-10)
1.1. 0-6 aldiko hezkuntza- eta ikaskuntza-prozesuen oinarritzko printzipioen identifikazio eta erabilpen zuzena irakaskuntza-esperientziaren azterketan. (M1)	Apenas identifikatu dira oinarritzko printzipioak. Kontzeptuzko erroreak daude erabiltzean. Irakaskuntza-esperientziak proposatutako hezkuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan parte hartzen duten diziplinen arteko harremanak ez dira identifikatu.	Ia oinarritzko printzipio guztiak identifikatu dira. Nahasmenduren bat bada, erabiltzean. Identifikatu dira diziplinarteko harreman batzuk, haien adibiderik eman gabe.	Oinarritzko printzipio guztiak zuzen identifikatu dira. Zuzen erabili dira. Identifikatu dira diziplinarteko harreman nabarmenenak, eta haien adibide batzuk eman ere.	Oinarritzko printzipio guztiak zuzen identifikatu dira. Zuzen erabili eta haien arteko erlazioak ezarri dira. Sakondu da, diziplinarteko harremanak deskribatzen, eta haien adibideak eman dira.
1.2. Hautatutako irakaskuntza-esperientziaren agertzen diren HHko esperientzia-eremuen oinarritzko printzipioak aztertzeko sakontasun eta xehetasun maila, eta etaparen curriculumarekin dituzten erlazioen identifikazio zuzena. (M1)	irakaskuntza-esperientziaren deskribapen azalekoa egin da. Ez da argudiatu irakaskuntza-esperientziaren garrantzi-maila curriculumaren eta berrikuntzaren ikuspuntutik. Apenas identifikatu dira irakaskuntza-esperientzian agertzen diren esperientzia-eremuetako oinarritzko printzipioak. Ez dira identifikatu etaparen curriculumarekin dituen harremanak.	irakaskuntza-esperientziaren deskribapen orokorra egin da. Argudiatu da irakaskuntza-esperientziaren garrantzi-maila curriculumaren eta berrikuntzaren ikuspuntutik. Identifikatu dira irakaskuntza-esperientzian agertzen diren esperientzia-eremuetako ia oinarritzko printzipio guztiak. Bada nahasmenduren bat etaparen curriculumarekin dituen harremanak identifikatzerakoan.	irakaskuntza-esperientziaren deskribapen aski xehea egin da. Argudiatu da irakaskuntza-esperientziaren garrantzi-maila curriculumaren eta berrikuntzaren ikuspuntutik. Identifikatu dira irakaskuntza-esperientzian agertzen diren esperientzia-eremuetako oinarritzko printzipio guztiak. Zuzen identifikatu dira curriculumarekin dituen harreman nabarmenenak.	irakaskuntza-esperientziaren deskribapen xehea egin da. Argudiatu da irakaskuntza-esperientziaren garrantzi-maila curriculumaren eta berrikuntzaren ikuspuntutik. Sakondu da irakaskuntza-esperientzian agertzen diren esperientzia-eremuetako oinarritzko printzipioen azterketan. Zuzen identifikatu dira curriculumarekin dituen harreman guztiak.
1.3. irakaskuntza-esperientziaren gaineko azterketaren sakontasun eta xehetasun maila hezkidetzaren ikuspuntutik. (M1)	Apenas identifikatu dira irakaskuntza-esperientzian agertzen diren hezkidetzaplanteamenduak.	irakaskuntza-esperientzian agertzen diren hezkidetzaplanteamendu batzuk identifikatu dira, haien adibiderik eman gabe.	irakaskuntza-esperientzian agertzen diren hezkidetzaplanteamendu nabarmenenak identifikatu dira, eta haien adibideak eman ere.	Sakondu da irakaskuntza-esperientzian agertzen diren hezkidetzaplanteamenduen azterketan, adibideak emanez eta horien gainean hausnartuz.
1.4. Irakaskuntza-esperientziari buruzko balioespenen argudiatze koherentea, psikologiaren, pedagogiaren, arloetako didaktiken eta hezkidetzaren ikuspuntutik. (M2)	Apenas hartu dira kontuan diziplinen eta hezkidetzaren planteamenduak.	Diziplinen eta hezkidetzaren planteamendu bakar batzuk hartu dira kontuan.	Diziplinen eta hezkidetzaren planteamenduetan oinarrituz argudiatu da.	Diziplinen eta hezkidetzaren planteamenduetan oinarrituz argudiatu da. eta haien arteko harremanak ezarri dira.

ERRUBRIKAREN PONDERAZIOA. Txostenaren aurkezpena.				
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	Hobetu behar (0-4.99)	Onargarria (5-6.99)	Lan ona (7-8.99)	Lan bikaina (9-10)
1.5. Hizkuntzaren erabilpen zuzena: ortografia, sintaxia, hiztegi orokorra eta hiztegi teknikoak. (M3)	Sintaxi, ortografia edo puntuazio akatsek zaildu egiten dute txostenaren irakurketa. Hiztegi orokorra eskasa da. Hiztegi teknikoak erabiltzean akatsak daude.	Sintaxi, ortografia edo puntuazio akats batzuek zaildu egiten dute txostenaren irakurketa. Hiztegi orokorra zuzen erabili da. Hiztegi teknikoak gutxi erabili da.	Sintaxi, ortografia edo puntuazio akatsen bat bada, baina ez du zailtzen txostena irakurtzea. Hiztegi orokorra zuzen erabili da. Hiztegi teknikoak zuzen erabili da.	Ez dago akatsik sintaxian, ortografian eta puntuazioan. Hiztegi orokorra zuzen eta aberats erabili da. Hiztegi teknikoak zuzen, ugari eta aberats erabili da.
1.6. Lanaren aurkezpen egokia: ordena, testuak eta irudiak tratatzeko oinarritzko programa informatikoen eta APA arauen erabilpen zuzena. (M3)	Aurkezpen eskasa. Eduki antolatu gabea, tituluak eta baliabide tipografikoak erabiltzean akatsak eginez. Programa informatikoen erabilera eskasa. Ez dakar dokumentazio ikonikorik.	Aurkezpen onargarria. Edukia asko antolatua du, tituluak eta baliabide tipografikoak erabiltzean akatsen bat eginez. Programa informatikoen erabiltzean akatsen bat bada. Dokumentazio ikoniko gutxi dakar.	Aurkezpen ona. Eduki aski antolatua, txostena egituratzeko tituluak eta baliabide tipografikoak erabiliz. Programa informatikoen erabilera zuzena. Nahiko dokumentazio ikonikoa dakar.	Aurkezpen bikaina. Txostena ongi antolatua, lana egituratzeko titulu eta baliabide tipografikoak erabiliz. Programa informatikoen erabilera zuzena. Dokumentazio ikoniko osoa dakar.

ERRUBRIKAREN PONDERAZIOA. Talde-lana.				
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	Hobetu behar (0-4.99)	Onargarria (5-6.99)	Lan ona (7-8.99)	Lan bikaina (9-10)
1.7. Lantaldearen funtzionamendu eraginkorra, taldekideen parte-hartze aktiboa eta arduratsua, zereginen banaketa orekatua eta kooperatiboa, eta aurkitutako zailtasunak konpontzeko autonomia. (M4)	Taldearen funtzionamendua ez da eraginkorra izan: Arduren banaketa taldekideen artean ez da orekatua izan. Denbora eta zereginak ez dira ondo kudeatu, ezarritako epeak ez dira bete. Laguntza behar izan da aurkitutako zailtasun guztiak gainditzeko.	Taldearen funtzionamendua eraginkortasun gutxikoa izan da: Arduren banaketa taldekideen artean orekatua izan da. Denbora eta zereginak ez dira ondo kudeatu, ezarritako epeak ez dira bete. Laguntza behar izan da aurkitutako zailtasun gehienak gainditzeko.	Taldearen funtzionamendua aski eraginkorra izan da: Arduren banaketa taldekideen artean orekatua izan da. Denbora eta zereginak ondo kudeatu dira, ezarritako epeak bete dira. Laguntza behar izan da aurkitutako zailtasunen bat gainditzeko.	Taldearen funtzionamendua oso eraginkorra izan da: Arduren banaketa taldekideen artean orekatua izan da. Denbora eta zereginak ondo kudeatu dira, ezarritako epeak bete dira. Aurkitutako zailtasunak modu autonomoan konpondu dira.

13. MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK

Zein ikasleek jarraitu beharko dute Moduluko Diziplina arteko Jardueraren bukaerako ebaluazio sistema?

- Eskola eta Curriculum (K2) moduluan parte-hartzen duten ikasgaietan partzialki matrikulatutako ikasleak.
- Eskola eta Curriculum (K2) moduluan parte-hartzen duten ikasgaietatik bitan gutxienez bukaerako ebaluazioa egitea aukeratu duten ikasleak.
- Eskola eta Curriculum (K2) moduluan parte-hartzen duten ikasgaietatik bi gutxienez baliozkotuak dituzten ikasleak.
- Moduluko Diziplina arteko Jardueran parte-hartuko duten talde bateko partaide guztiek ikasgairan bat baliozkotua duten ikasleak.

Informazio gehiago eskuratzeko, moduluko akordioen web-dokumentua kontsultatu:

<https://www.ehu.eus/documents/5299588/5638011/GU%C3%8DA+ACUERDOS+MODULAR+ES+Y+PAUTAS+PARA+LA+CONVIVENCIA.pdf/342ac423-f866-7b22-4980-e5b87d0918d7>

14. LANA BURUTZEKO ERREFERENTZIAK

14.1. Azterketarako irakaskuntza-esperientzi eskuragarriak, gida, curriculum-ak eta beste batzuk

Mindomo K2 izeneko baliabidean kontsultatu:

<http://www.mindomo.com/view.htm?m=f86989793c9d4097ac04eeeedd754dda>

Pasahitza: eskolaetacurriculum

14.2. Testu arauemaileak

EAEko Hezkuntza, Hizkuntza-politika eta Kultura saila (2016). *237/2015 Dekretua. Haur Hezkuntzako curriculum*. EHAA, 9. zk., 2016ko urtarrilak 15, ostirala.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/01/1600142e.pdf>

École maternelle: <http://www.education.gouv.fr/pid35/ecole-maternelle.html>

Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako curriculum / Currículum de Educación Infantil de la Comunidad Foral de Navarra

<http://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/profesorado/curriculos-y-normativa/infantil-y-primaria>

Parlamento Europeo (2006). *Resolución legislativa del Parlamento Europeo relativo a la propuesta de Recomendación del Parlamento Europeo y del Consejo sobre las competencias clave para el aprendizaje permanente* (COM(2005)0548 – C6-0375/2005)

– 2005/0221(COD)) <http://www.europarl.europa.eu/sides/getDoc.do?pubRef=-//EP//TEXT+TA+P6-TA-2006-0365+0+DOC+XML+V0//ES>

14.3. Gaitasunak

Arnau, L., eta Zabala, A. (2007). *11 Ideas Clave. Cómo aprender y enseñar competencias*. Bartzelona.

Carbonell, J., eta Serra, A. (2010). *La vida escolar en un curso. Cosas que no siempre se explican*. Bartzelona.

Escamilla, A. (2009). *Las competencias en la programación de aula Infantil y Primaria (3-12 años)*. Bartzelona.

Iglesias, M. L. (2008). Observación y evaluación del ambiente de aprendizaje en Educación Infantil: dimensiones y variables a considerar. *Revista Iberoamericana de educación*, 47, 49-70.

14.4. Hezkidetza

Abril, P., eta Romero, A. (2008). *Recursos para la implementación del género en la Educación Infantil*. Gender Loops proiektua.

Apodaka, M. J., eta Ugarte, B. (2007). *Hezkidetza gida*. Bilbo.

Belmonte, J. eta Guillamón, S. (2008). Co-educar la mirada contra los estereotipos de género en TV. *Comunicar*, 31, 115-120.

Cuadrado, M. (2009). *El género femenino a través de la publicidad*. Madril.

STEE-EILAS Sindikatua. *Emakumeen karpeta 2010. Hezkidetza da bidea*. http://www.stee-eilas.org/03arloak/karpeta%20emakumea_e.htm

14.5. Haur Hezkuntzarako testu-liburuak

Inguruko ikastetxeetan zabalkunderik handiena duten argitaletxeen bildumak, kontsultarako daude Campuseko Liburutegian, Miguel Unamuno aretoan:

Gaztelera:

- Anaya, <http://www.anayaeducacion.es/catalogos.php?autonomia=14&etapa=76>
- Bruño, <http://www.editorial-bruno.es/catalogos.php?etapa=76>
- Edelvives, <http://www.edelvives.com/>
- Santillana, <http://www.santillana.es/>
- SM, <http://www.grupo-sm.com/>

Euskara:

- Elkar, Ibaizabal, <http://www.ibaizabal.com>

- Elkar eta Ikastolen Elkartea (2009). *Urtxintxa*. Donostia.
<http://www.urtxintxa.net/>

14.6. Hobetzeko aukerak kontsultatzeko erreferentziak

Arteleku. <http://arteleku.net/>

[Escuelas Infantiles de Reggio Emilia](#)

Gasteizko udala. Udaleko hezkuntza sailaren programak. http://www.vitoria-gasteiz.org/we001/was/we001Action.do?idioma=eu&nuevaPag=&uid=u1617ab49_12b0e7b5b70_7fbb&aplicacion=wb021&id=&tabla=contenido

Hik Hasi (aldizkaria). <http://www.hikhasi.com/>

Ikas. <http://www.ikas.org/>

Malaguzzi, L. (2001): *La educación Infantil en Reggio Emilia*. Bartzelona.

Naraba. <http://www.micronet.es/narabaworld/>

Pincel y ratón. <http://pincelyraton.com/>

Rekursostic. <http://recursostic.educacion.es/infantil/fantasmin/web/>

Txiki. <http://txiki.net/>

Zernola. <http://www.zernola.net/>

ERANSKINA: taldearen fitxa

Taldea:	31 (jarri ere zuen taldea: GA1 edo GA2)			
Taldearen Izena				
Argazki indibiduala	Izen-Abizenak	Harremanetarako posta elektronikoa	Taldearen funtzioak: bakoitzaren funtzioa taldean ¹	2. lauhilabeteko baliozkotutako edo gainditutako irakasgaiak
Deskribapena				
Aurrez aukeratutako irakaskuntza-esperientziak				
Behin betiko irakaskuntza-esperientzia				

¹ - Koordinatzailea: irakasleengana harremana eta taldea ondo funtzionatzeko duela zaintzeko arduraduna.
 - Idazkaria: bilerak deitzeko eta material guztiak gordetzeko pertsona.
 - Moderatzailea: hitz egiteko txandak errespetatzen direla, gai-zerrendari jarraitzen zaiola... kontrolatuko du.
 - Akten arduraduna: akta idatziko du eta gainerako taldekodeei emango die.

1. ERANSKINA: akta eredua

Taldearen funtzionamendu-arauak (esaterako, zer egin behar den taldean arazoak badaude, zer gertatzen den taldekide batek lan egiten ez badu, nola bermatu taldekide guztiek esleitutako lana betetzen dutela, nola koordinatu, etab.)

1.

2.

3.

4.

...

Bileraren akta
Bilera-ordutegia:
Bilera-lekua:
Taldearen barne-komunikazioa (nola, noiz, pertsona arduraduna):
Parte-hartzea (bertaratzea, puntualtasuna, lana betetzea)
Lan-taldearen erregistroa eta jarraipena (bileraren eta hartutako erabakien laburpena, lana banatzea / nor arduratzen da zeregin bakoitzarekin: nork gordetzen du bildutako informazioa, nork antolatzen du informazio hori, etab.)

Sinadura:	Sinadura:	Sinadura:	Sinadura:
Izen-abizenak	Izen-abizenak	Izen-abizenak	Izen-abizenak